

# TUTORETZA-BIDEOA 2

## PARTEKATZE-FUNTZIOA; INSTRUKZIOAK

Tutoretza-bideoaren helbidea: <http://youtu.be/Xo8m5EAnUk8>


Egilea: Aiora Egiguren Solabarrieta

IRALE-Eibar 2014/2015

## PARTEKATU. 2. tutoretza-bideoa.

Tutoretza-bideo honetan, Kahoot! Plataforman sortutako zenbait matematika-jarduera nola partekatu azalduko da.

Ezer egin aurretik, izena eman Kahoot!plataforman. Honela:



Sartu Interneteko helbide honetan: <http://getkahoot.com>



Eman izena, eta klik egin **Get my free account** botoian



Erregistratutakoan, ikasleekin erabiltzeko jarduerak sor daitezke.



Edo beste egile batzuen jarduerak erabili.



Gure kasuan, **DBH1 eta DBH2ko Matematikako ebaluazio-jarduerak** erabiltzeko aukera dago.

### Horretarako, jarraitu honako pausu hauek:

- 1) Gogoratu: ariketak erabili aurretik jarduerak partekatu egin behar dira. Beste modu batera esanda, ariketak norberaren plataformara eraman behar dira. Ez lanik egin egilearen plataformatik.
- 2) Klik egin **Sing in** botoian, eta hasi saioa honako erabiltzaile eta pasahitzarekin:

**Erabiltzailea:** matematikadbh

**Pasahitza:** matematikadbh

- 3) Pantaila bat zabalduko da. Egin klik **My Kahoot!s** atalean. Bertan daude DBH1 eta DBH2ko Matematikako zenbait ebaluazio-jarduera.
- 4) Aukeratu partekatu nahi den ariketa, eta egin klik **Share** botoian. Idatzi norekin partekatu nahi den jarduera eta erabiltzaile berriaren datuak.
- 5) Adi! Ez jolastu egilearen gunetik, bestela hainbat lekutako ikasleen emaitzak nahastu egingo dira.

- 6) Itxi **matematikadhb** erabiltzailearekin hasitako saioa.
- 7) Hasi beste saio bat norberaren erabiltzailearekin.
- 8) Egin klik **My kahoot!s** botoian. Bertan agertuko da aurretik partekatu den ariketa.
- 9) Adi! Talde bat baino gehiagorekin jolasteko, bikoiztu jarduerak. Horretarako, egin klik **Duplicate** botoian. Bikoiztutako ariketa **Create by me** atalean gordeko da.
- 10) Egin klik **Continue editing** botoian.
- 11) Jarraian, egin klik **Save & continue** botoian.
- 12) Parametroak aldatu nahi badira, aldatu, eta berriro egin klik **Save & continue** botoian.
- 13) Dena prest dagoenean, egin klik **Done** botoian prozesua bukatzeko.

Jarduerak partekatu egin dira, eta norberaren plataforma-gunean daude.